

OSOKO BILKURA 2021-10-28

Organoa: Udal Plenoa

Izaera: Ohikoa

Deialdia: Lehena

Eguna: 2021-10-28

Ordua: Hasiera 18:31etan.

Bukaera 18:53etan.

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak:

Alkatea: Iزارo Elorza Arregi andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- .- Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
- .- Anik Maitane Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)
- .- Iñaki Olalde Altzelai jauna (Bildu)
- .- Maite Anton Leno andrea (EH Bildu)
- .- Iker Oñate Ayastuy jauna (EH Bildu)
- .- Susana Altuna Ugarte andrea (EH Bildu)
- .- Vicente Urrutia Elexpuru jauna (EH Bildu)
- .- Alaitz Kortabarria Igartua andrea (EH Bildu)
- .- Asier Iraeta Izagirre jauna (EH Bildu)

- .- Ainhoa Galdos Olazar andrea (EAJ-PNV)
- .- Andoni Altuna Uribe jauna (EAJ-PNV)
- .- Miren Amaia Erostarbe Letamendi andrea (EAJ-PNV)
- .- Jon Kepa Guerricagoitia Arrien jauna (EAJ-PNV)
- .- Maria Jose Etxegoien Arzuaga andrea (EAJ-PNV)
- .- Nerea Altube Galdos andrea (EAJ-PNV)
- .- Angel Biain Peña jauna (EAJ-PNV)

Idazkaria: Iñigo Roldan Catalan jauna

Kontu-hartzailea: Paskual Elustondo Darpon jauna

AZTERGAIAK

1. Onartzea, hala badagokio, 2021-09-27ko ohiko osoko bilkuraren akta, (8.2021).
2. Onartzea, hala badagokio, 2021-10-21ko ez-ohiko eta premiazko osoko bilkuraren akta, (9.2021).
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat ez hartzea zerrendatzen den eskatzailearen obra, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko urriaren 5an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Selma Huxley Barkham bekaren III. Deialdiariaren oinarri arautzaileen eta 2021eko deialdiaren onarpena, Berdintasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko urriaren 19an.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko XIV. Erakusleiho Lehiaketaren oinarrien onarpena eta deialdia, Sozioekonomia eta turismo Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko urriaren 13an.

6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko urriaren 19an.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Deba Garaiko Udal Elkartearen ordezkotza berria izendatzea, puntua gai-zerrendan sartzea berretsi ondoren.
8. Hala badagokio, presako gaiak.
9. EH BILDU eta EAJ udal taldeek aurkeztu duten mozioa, Salba dezagun Sultana Jayaren bizitzari buruz.
10. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
11. Irailaren 23tik urriaren 22ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 955 zenbakitik 1077 zenbakira.
12. Galderak eta eskaerak.

Akta honen parte da saioaren soinu-grabazioaren ondoriozko fitxategia. MP3 formatuko fitxategi bat da, Udaleko Zerbitzariaren saioko karpetan dagoena, osoko bilkuraren datarekin.

BILERA:

1.- Onartzea, hala badagokio, 2021-09-27ko ohiko osoko bilkuraren akta, (8.2021).

Alkateak galdetu du ea Udalbatzako kideren batek oharren bat egin behar duen aurreko bilkurako aktari buruz.

EAJ-ko udal taldeak adierazi du Osoko Bilkuraren grabazioa nahi dutela eta aktak egiteko modua ez dela osoko bilkuran adostu.

Idazkariak erantzun du, grabazio eta dokumentuetarako sarbidea dutela eta hurrengo bilkurarako bozeramaileekin bilera bat egingo dela.

2021eko irailaren 27ko bilkura agiria irakurri eta aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

2

2.- Onartzea, hala badagokio, 2021-10-21ko ez-ohiko eta premiazko osoko bilkuraren akta, (9.2021).

Alkateak galdetu du ea Udalbatzako kideren batek oharren bat egin behar duen aurreko bilkurako aktari buruz.

Galdos andreak adierazi du, bere taldea aktarekin ados egongo dela, bere proposamena aktan txertatzen baldin bada.

Kontu-hartzaileak idazkariari pasatuko dio EAJ-k, ogasun batzordean, zergen arautegiari buruz egindako proposamena, aktan txertatzeko.

2021eko urriaren 21eko bilkura agiria irakurri eta aztertu ondoren, eta arestian aipatutako txertaketarekin, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

3.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat ez hartzea zerrendatzen den eskatzailearen obra, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko urriaren 5an.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Interes bereziko obratzat ez hartzea obra.

2021eko urriaren 5an egindako Ogasun batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Ogasun Batzordeko idazkaria eta Kontu-hartzailea (Paskual Elustondo Darpon jauna), ziurtatzen duenez:

ondorengo zehatzen du: e) Toki eremuan , emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.

2021eko uztailaren 22ko Osoko Bilkuran onartu zen Oñatiko Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako II. Plana zeinak besteren artean ondorengoak aurreikusten dituen:

3. Emakumeen ahalduntzea. 3.2. Emakumeen partaidetza soziopolitiko eta eragina sustatzea.

Oñatiko Udalak, ikerketa baliatuz, emakumeen ekarpena zer nolakoa izan den jasotzen jarraitu nahi du, kontatu gabeko historia argitara eman, eta emakumeei zor zaien aitortza egin ahal izateko.

Oñatiko Udalaren berdintasun politiken ardatzetako bat da emakumeen ahalduntzea eta helburu estrategikoa emakumeen partaidetza soziopolitiko eta eragina sustatzea. Ardatz eta helburu horiek erdiesteko tresna garrantzitsua bilakatu da honako ikerketa beka.

Oihane Ruiz de Apodaka Bermudezen (Berdintasun teknikaria) 2021eko urriaren 19an egindako Berdintasun Batzordearen sinatutako aktak dio:

“3. Selma Huxley Barkham ikerketa beka deialdia berriro zabaltzeko proposamenaren onarpena eta ikerketa-beka arautzen duten deialdiaren oinarriak onartzea:

Selma Huxley Barkham ikerketa beka deialdia berriro zabaltzeko proposamena eta ikerketa beka arautzen duten deialdiaren oinarriak aho batez onartu dira.

Deialdi honetan emango den beka zenbatekoa guztira hemezortzi mila (18.000) eurokoa izango da, eta horretarako 2022 eta 2023 ekitaldietako kronpromiso kreditua ezartzeko proposamena aho batez onartu da”.

Jasota dago espedientearen kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Azaldutakoagatik, Berdintasun batzordeak osoko bilkurari honako hau proposatzen zaio:

4

LEHENENGOA.- Jarraian ageri den ikerketa bekarako diru-laguntzarako deialdia eta eranskinean jasotzen diren oinarriak onartzea:

1. Ikerketa bekarako deialdia.
2. Eranskina: deialdiaren oinarriak.

BIGARRENA.-

1. Finantziazioa.

1.1. Baimentzea beka ikerketarako gastua. Deialdi honetan emango den beka zenbatekoa guztira hemezortzi mila (18.000) eurokoa izango da, eta horretarako 2022 eta 2023 ekitaldietako kronpromiso kreditua ezartzea aurrekontuko 1 0503.227.231.50.95 diru atalean (bekaren %70, 12.600 euro, 2022rako eta bekaren %30, 5.400 euro, 2023rako).

2. Eskaerak aurkezteko epea.

30 egun balioduneko epean, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hastea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen bidez onartuko diren oinarri arautzaileek eragina izango dutela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera.

LAUGARRENA.- Deialdi honen iragarkia Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (DNS) argitaratzea.

BOSTGARRENA.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta Berdintasun teknikariari jakinaraztea.

SEIGARRENA.- Erabaki hau behin betikoa izango da eta amaiera emango dio administrazio bideari.

Interesatuek erabaki horren aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkeztu izango dezaketela Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera izango dutela horren aurretik Berraztertzeko Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Osoko Bilkurari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Gaia aztertuta, eta Berdintasun Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

5.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko XIV. Erakusleho Lehiaketaren oinarrien onarpena eta deialdia, Sozioekonomia eta turismo Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko urriaren 13an.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena.

Gaia: Oñatiko XIV. Erakusleho Lehiaketaren oinarrien onarpena.

2021eko urriaren 13an egindako Sozioekonomia eta Turismo batzordearen akta, Unai Kortabarria Errasti, Oñatiko Sozioekonomia Saileko teknikariak sinatua. Honela dio:

Abenduan Erakusleho lehiaketaren XIV. edizioa antolatzea proposatu da batzordean. Covid-19aren eraginez aurtengo oinarrietan hainbat egokitzapen proposatu da:

5

Hauek dira proposatutako oinarriak:

- 1.- Lehiaketa honetan Oñatiko denda/zerbitzu guztiak parte hartu ahal izango dute.*
- 2.- Izena emateko epea azaroaren 30arte egongo da zabalik. Izena ematea internet bidez egin beharko da, dokumentu honen amaieran dagoen QR kodea eskaneatuta eta izen emate orria beteta.*
- 3.- Erakusketaren epea, gutxienez, abenduaren 7tik 31ra bitartekoa izango da (biak barne), erakuslehoaren muntaia abenduaren 7rako egina egon beharko delarik.*
- 4.- Erakuslehoan, denda-zerbitzuaren ohiko produktuak jarri beharko dira.*
- 5.- Erakuslehoen balorazioa egiterakoan, epaimahaiak kontutan izango dituen irizpideak hauek izango dira:*
 - Konposizioa.*
 - Argiztapena.*
 - Koloreak.*
 - Originaltasuna*
- 6.- Sariak Oñatiko Udalak emandakoak izango dira, honela banatuko direlarik :*
 - Lehenengo saria500€*
 - Bigarren saria300€*

- Hirugarren saria.....200€
- Herritarren saria..... 500€

7. Lehenengo hiru sariak epaimahaiak aukeratuko ditu. Epaimahai hau erakusleiho-apainketa arloko adituek osatuko dute. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

8.- Herritarren sariaren irabazlea bozketa bidez aukeratuko dute Oñatiko herritarrek. Bozka gehien jasotzen duen erakusleihoa izango da sari honen irabazlea.

9.- Herritarren sariaren aukeraketa internet bidez egingo da. Herritar bakoitzeko bozka bakarra onartuko da eta hautaketan parte hartzeko epea abenduak 17ko eguerdiko 14:00arte egongo da zabalik. Abenduko Kontzejupetik aldizkarian, udalaren web orrian eta parte hartuko duten erakusleihoetan jarriko dira bozkatu ahal izateko QR kodeak.

10.- Bozketan parte hartzen duten herritarren artean, 200 Euroko saria zozketatuko da.

11.- Sari banaketari buruzko xehetasunak aurrerago jakinaraziko dira.

12.- Lehiaketa honetan parte hartzen duenak oinarri hauek onartu beharko ditu.

Oinarri hauek Sozioekonomia eta Turismo batzordean aztertu ondoren, honako erabaki proposamena egiten zaio Tokiko Gobernu Batzordeari:

LEHENEGOA - Oñatiko XIV. Erakusleiho Lehiaketaren oinarriak onartzea eta lehiaketa martxan jartzeko erabakia hartzea.”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

4. artikulua: “Lege honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira:
A) Onuradunak alde zuzenetik eskatu gabe ematen diren sariak.”

Hamargarren xedapen gehigarria. Hezkuntza, kultura, zientzia edo beste edozein izaerako sariak. “Erregelamendu bidez ezarritako da hezkuntza-, kultura-, zientzia- edo beste edozein izaerako sariak emateari aplikatu beharreko araubide berezia, lege honen edukira egokitu beharko dena, diru-laguntzen izaera bereziagatik aplikagarria ez den alderdietan izan ezik.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere **3. Artikuluan 1 eta 2** ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Jasota dago espedientearen kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Azaldutakoagatik, eta Sozioekonomia eta Turismo Batzordearen onetsiarekin, Osoko Bilkurari honako hau proposatzen diot:

LEHENENGOA.- Oñatiko XIV. Erakusleihu Lehiaketaren oinarriak onartzea eta lehiaketa martxan jartzeko erabakia hartzea.

BIGARRENA.- 2021eko deialdia onartzea eta dirulaguntza hauek finantzatzeko guztira 1.700€ko gastua baimentzea, udal aurrekontuen dagokion diru-ataletik eta bere lotespen mailatik.

HIRUGARRENA.- Onartzea aipatutako deialdiri loturiko epeak.

LAUGARRENA.- Oinarriak eta deialdia indarrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera, behin diru-laguntzen datu-base nazionalean argitaratuta.

BOSTGARRENA.- Deialdi honen iragarkia Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (DNS) argitaratzea.

SEIGARRENA.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta Sozioekonomia teknikariari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta Sozioekonomia eta Turismo batzordearen irizpena kontuan hartuz, eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

6.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko urriaren 19an.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

7

Gaia: Interes bereziko obrak.

2021eko urriaren 19an egindako Ogasun batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Ogasun Batzordeko idazkaria eta Kontu-hartzailea (Paskual Elustondo Darpon jauna), ziurtatzen duenez.

“Hainbat herritar eta erakundek eskatu dituzte beren eraikinetako obra-baimenak. Aldi berean eskatu dute, 2021eko Zerga Ordenantzak xedatutakoaren arabera Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren hobaria aplikatu ahal izateko, egin beharreko obrak interes berezikotzat edo udal onurakoak izenda daitezela.

Kontu-hartzaileak zera dio:

a) 2020ko Udal Zerga Ordenantzak EIOZen hobarien 3.puntuan zera dioela:

“3.-15/1989 Foru Arauren “Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga” V. Kapituluaren 5.a artikulua xedatutakoaren arabera, 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”

b) Aipatu obren lan-baimenak espedientean daude.

c) Kontu-hartzailearen iritziz, behean zerrendatzen diren eskatzaileen obrek betetzen dituzte Oñatiko Udaleko 2020ko Zerga-Ordenantzako EIOZ-ren obren hobarien 3. A) I vi puntuan jasotako baldintzak.

Ogasuna Batzordeak, ahobatez, honako aldeko irizpena igortzen dio Osoko Bilkurari:

- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hobaria aplikatuko litzaieke:

LAN BAIMENA LEIHOAK

IZENA	NAN	HELBIDEA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	LEIHOAK	25%

“

Gaia azterturik, eta Ogasun batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

LEHENENGOA.- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hobaria aplikatuko litzaieke:

LAN BAIMENA LEIHOAK

IZENA	NAN	HELBIDEA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	LEIHOAK	25% ⁸
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	LEIHOAK	25%

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau kontu-hartzaileari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta Ogasun Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

7.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Deba Garaiko Udal Elkartearen ordezkotza berria izendatzea, puntua gai-zerrendan sartzeari berretsi ondoren.

2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena, bere 82.3 artikulua dio:

“Alkateak edo lehendakariak, behar bezala arrazoituta presazko arrazoiak direla medio, gai-zerrendan sartu ahal izango ditu, bere ekimenez edo bozeramaileetako batek proposatuta, dagokion Informazio Batzordeak alde aurretik informatu ez dituen gaiak, baina kasu horretan ezin izango da gai horiei buruzko erabakirik hartu Osoko Bilkurak gai-zerrendan sartzeari berretsi gabe.”

Alkateak gai hau gai-zerrendan sartzeko arrazoiak eman ondoren (ez zuela hurrengo batzorderako astirik ematen eta premiazkoa dela espediente horien erabaki bat hartzea) gai hau gai-zerrendan sartzeari berretsi da 17 boto aldekoekin (10 EH BILDU + 7 EAJ).

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du:

Gaia: Deba Garaiko Udal Elkartearen ordezkari berria izendatzea.

I.- 2019ko uztailaren 23ko Oñatiko Osoko Bilkuran Deba Garaiko Udal Elkartearen onartutako udal ordezkariak hauek izan ziren:

“2. Deba Garaiko Udal Elkartearen.

– Anik Zubizarreta Arturo (EH Bilduko zinegotzia).

– Maite Anton Leno (EH Bilduko zinegotzia).

– Iزارo Elorza Arregi (Alkatea).

Ordezkoak: Xabier Igartua Loidi, Bixente Urrutia Elexpuru, Asier Iraeta Izagirre (EH Bilduko zinegotziak).”

Akordio hori 2019ko abuztuaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (147. Zenbakia).

II.- Ikusita, Bixente Urrutia Elexpuren ordezkari, Iñaki Olalde Altelai jauna izendatzea komenigarria dela, EH Bilduko bozeramailearen idatziaren arabera.

III.- Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 29 eta 38. artikuluek honako hau diote:

–“Taldea politikoei dagokien, lehendakariari zuzendutako bozeramailearen idazki baten bidez eta erregelamendu honetan kasu bakoitzean aurreikusitako baldintzetan, talde desberdinetako kideek osatutako korporazioko kide anitzeko organo guztietan ordezkariak dituzten kideak izendatzea.”

–“ Eratze-bilkura egin eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan, alkateak udalbatzaren osoko bilkura bereziko deia egingo du, hurrengo puntuak ebazteko:

C) Korporazioko ordezkariak osoko bilkuraren eskumenekoak diren kide anitzeko organoetan izendatzea.”

Gainera, erregelamendu horrek, bere 82.3 artikuluan dio:

“Alkateak edo lehendakariak, behar bezala arrazoituta presazko arrazoiak direla medio, gai-zerrendan sartu ahal izango ditu, bere ekimenez edo bozeramaileetako batek proposatuta, dagokion Informazio Batzordeak alde aurretik informatu ez dituen gaiak, baina kasu horretan ezin izango da gai horiei buruzko erabakirik hartu osoko bilkurak gai-zerrendan sartzea berretsi gabe.”

Gaia azterturik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

LEHENENGOA.- Deba Garaiko Udal Elkartearen ordezkari berria izendatzea, Iñaki Olalde Altelai jauna, Bixente Urrutia Elexpuren ordezkari.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Deba Garaiko Udal Elkarteari jakinaraztea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Gaia aztertuta, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotzietatik aho batez onartu dute.

8.- Hala badagokio, presako gaiak.

Ez daude.

9.- EH BILDU eta EAJ udal taldeek aurkeztu duten mozioa, Salba dezagun Sultana Jayaren bizitzari buruz.

Elorza andreak mozio hau irakurri du:

Oñatiko EH Bildu eta EAJ-PNV-ren mozio bateratua:

“SALBA DEZAGUN SULTANA JAYAREN BIZITZA

Sultana Jaya Mendebaldeko Saharako gune okupatuaren aurpegirik ikusgarrietako bat da, Marokoko okupazio agintarien aurka duen borrokagatik. Sultana eta bere familia tratu txar fisiko eta psikologikoak jasaten ari dira amore eman dezaten beren Saharar herriaren autodeterminazioaren eta independentziaren aldeko aldarrikapen baketsuan.

Saharar zibilek Mendebaldeko Saharako hiri okupatuetan bizi duten egoera larria salatzeko erresistentzia baketsu hori nazioarteko komunitatearen arreta jasotzen ari da.

Sultana, giza eskubideen defendatzailea, eta bere familia, Marokoko indar paramilitarrek ezarritako atxiloteta domizilariopean daramatzate 295 egun baino gehiago. Euren etxeko sarrera blokeatuta dago, eta sahararrak ezin dute etxean sahararren bisitarik jaso.

Marokoko erregimena gerra egoera eta pandemiaren ondorioz mugak ixtea aprobetxatzen ari da beldurra eta Mendebaldeko Saharan okupatutako eremuetako zibil sahararren aurkako errepresioa ezartzeko, deskolonizatzeko dagoen Afrikako azken kolonia baita, eta oraindik ere Espainia da potentzia administratzailea.

PREMIAZKOA DA SULTANA JAYA ETA HAREN FAMILIAREN BIZIA SALBATZEA. Horretarako, beharrezkoa da:

- 1.- NBEri, EBri eta Espainiari premiaz jarduteko eta Sultana ekintzaile sahararra eta haren familia babesteko eskatzea, benetako arriskuan eta Marokoko okupazio-indarrek setiatuta, bakartuta eta konfinatuta jarraitzen baitute.
- 2.- Espainiako Gobernuari eskatzea bete ditzala potentzia administratzaile gisa dituen erantzukizunak, eta, bereziki, Sultana Jaya ekintzaile saharararen eta haren familiaren babes berma dezala eta Marokoko gobernuari eska diezaiola Nazioarteko Zuzenbide Humanarioa errespetatzea.
- 3.- Nazioarteko mediku-batzorde bat Bojador hiri okupatura lehenbailehen bidaltzeko eskatzea, ekintzailea eta bere familia lehenbailehen artatzeko giza eskubideen urraketa honen aurrean.
- 4.- NBEren Segurtasun Kontseiluari eskatzea saharar herriaren autodeterminazioerreferenduma bizkortzeko, Nazio Batuen hainbat ebazpenetan adostutakoaren arabera.”

Udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Mozioa zinegotziek aho batez onartu dute.

10

10.- Hala badagokio, larrialdi-mozioak.

Ez dira aurkeztu.

11.- Irailaren 23tik urriaren 22ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 955 zenbakitik 1077 zenbakira.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

12.- Galderak eta eskaerak.

Ez daude.

Elorza andreak adierazten du hurrengo hilabeteko Osoko Bilkura 18:00etan hasiko da Emakumearen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunagatik bertaratzea egongo delako.

Besterik ezean, 18:53ak zirenean, Alkateak amaitutzat jo zuen bilkura, eta esandakoak jasota gera daitezten egin dut agiri hau Alkatearen ontzat emanarekin.

O.E

Alkateak

Idazkaria

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan